

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 13/2017 Foru Dekretua, martxoaren 14koa, zeinaren bidez aldatzen baitira maiatzaren 10eko 37/2016 Foru Dekretuaren bidez muga naturalak eta Arabako Lurralde Historikoaren berezko beste muga batzuk dituzten zonetako nekazaritza ustiatzearako onetsitako laguntzen oinarri arauak, Euskal Autonomia erkidegoko landa garapenerako 2015-2020 programaren esparruan, eta onesten baita laguntza lerro horren 2017ko deialdia

Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 10eko 37/2016 Foru Aginduaren bidez laguntzen oinarri arauak onartu ziren, nekazariei kalte-ordain gisako laguntzak emateko, nekazaritza ekoizpenak mendialdeetan edo mendialdeez bestaldeko gune behartsuetan dakartzan zailtasunen ondorioz sortzen diren kostu gehigarriengatik eta sarrera galerengatik, 1305/2013 Erregelamenduan ezarritako mugen barruan. Laguntza horiek M13.1 "Mendialdeko eskualdeetako konpentsaziozko ordainketak" eta M13.2 "Natura muga nabarmenak dituzten guneei edo mendialdeez bestaldeko gune behartsuei zuzendutako konpentsazio ordainketak" gisa daude identifikatuta Euskal Autonomia erkidegoko landa garapenerako 2015-2020 programaren esparruan. Halaber, laguntza lerro horien 2016ko deialdia egin zen.

Deialdi hori ebatzi ondoren, oinarri arauen alderdi batzuk zehaztu eta argitu behar izan dira, horiek hobeto ulertu eta aplikatu ahal izateko. Horrez gain, Garapen Ekonomikoko eta Azpiegiturretako Sailaren otsailaren 14ko 43/2017 Dekretuak, Euskadiko Landa Garapenerako 2015-2020ko Programan aurreikusten den laguntzen esparru araudia ezartzen duenak, xedatutakora egokitu egin behar izan dira oinarri horiek.

Bestalde, urriaren 1eko 39/2015 Legea, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena, 2016ko urriaren 2tik aurrera indarrean jarri izanak eta, bestetik, urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Arabako lurralde historikoko dirulaguntzena, 2016ko urriaren 29tik aurrera indarrean jarri izanak behartu egiten dute oinarri arau horiek aipatutako araudi berrira egokitzea.

Azkenik, kontuan izanik Arabako Foru Aldundiaren 2017ko gastu aurrekontuan kreditu nahikoa dagoela laguntza lerro hori izapidetzeko, beharrezko egiten da urte horretako deialdia onartzea.

Aginduzko txostenak ikusirik, Nekazaritza Saileko foru diputatuak hala proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onartzea ondorengo aldaketak egitea Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 10eko 37/2016 Foru Dekretuaren eranskinean ezarrita dauden M13.1 "Mendialdeko eskualdeetako konpentsaziozko ordainketak" eta M13.2 "Natura muga nabarmenak dituzten guneei edo mendialdeez bestaldeko gune behartsuei zuzendutako konpentsazio ordainketak" neurrietara zuzendutako dirulaguntzen oinarri arauetan.

0.1 Onuradunen betekizunak arautzen dituen 4. Artikuluko 1.a) 1.d) 1.h) 2.b) 2.c) eta 2.d) paragrafoak aldatzea. Honela idatzita geratzen dira:

4.1.a) Arabako Lurralde Historikoko Nekazaritzako Ustiatzearako Erregistroan inskribatutako nekazaritza ustiatzeari baten titularrak izatea.

4.1.d) Nekazaria izatea titulu nagusi gisa. Horren ondorioetarako, beharrezkoa izango da PFEZren aitopena aurkeztuta izatea.

4.1.h) Eskaera bakarra egitea eta horretan gutxienez ordainketarako onargarriak diren bi hektarea jasotzea.

4.2.b) Gainera, gutxienez sozietateren kapitalaren edo banaketa kuotaren ehuneko 50 duten kideen ehuneko 50ek gutxienez izan beharko dute nekazariaren izaera titulu nagusi gisa.

Edonola ere, bazkideen artean tituluak eskualdatuz gero, aurretik adierazitako baldintza bermatuko dela aurreikusi beharko da estatutuetan edo bazkideen batzar orokorrean hartutako erabakiaren bidez.

Titulartasun partekatuko erakundeen kasuan, eta urriaren 4ko 35/2011 Legeak, Nekazaritza ustiategiaren titulartasun partekatuari buruzkoak, 5 eta 11. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, kideetako batek ez badauka nekazaritzako etekinik egotzita azken bi ekitaldietako PFE-Zaren aitortpenean, ulertuko da nagusiki nekazaria dela, baldin eta beste kideak betekizun hori betetzen badu.

4.2.c) Zerga egoitza eta egoitza soziala Arabako Lurralde Historikoan izatea.

Zerga egoitzaren ondorioetarako, baldintza hau bete dela ulertuko da zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan dagoenean eta gutxienez bazkideen ehuneko 50ek Arabako Lurralde Historikoan zerga egoitza izateaz gain Araban kokatuta dagoen sozietate horretako kapital sozialaren ehuneko 50eko partaidetza badute gutxienez.

4.2.d) Ustiatetik kideek 18 urte beteta izan beharko dituzte eta 65 urte bete gabe, laguntza eskaerak aurkezteko epea amaitzen denean. Betekizun hori betetzat joko da, zerga egoitzari buruz artikulua honen 4.2 c) letran zehaztutako irizpidea betetzeaz gain, baldin eta bazkide guztien erdiek (ehuneko 50) sozietatearen kapitalaren gutxieneko ehuneko 50eko partaidetza izateko betekizuna betetzen badute.

1.2 Aldatzea 4., 5. eta 6. paragrafoak 7. artikuluan. Artikulu horretan arautzen dira murrizketak eta zehapenak, adierazitako azalaren eta azalarekin lotutako neurriek zehaztutako artean desadostasunik egonez gero. Honela idatzita geratzen dira:

7.4 Neurritz gain adierazitako kopurua ehuneko 3 edo txikiagoa bada, ez da inolako zehapenik jarriko, eta laguntza zehaztutako azalaren oinarriaren arabera ordainduko da.

7.5 Neurritz gain adierazitako kopurua ehuneko 3 edo 2 hektarea baino handiagoa bada, egiaztatu den aldearen halako 1,5eko zehapena jarriko da.

7.6 Neurritz gain adierazitako kopuruak ez badu zehaztutako azalaren ehuneko 10 gainditzen eta aurreko kanpainan zehapenik egon ez bada kasuan kasuko laguntza lerroan neurritz gain adierazitako kopuruagatik, aurreko paragrafoan adierazitako zehapena ehuneko 50 murriztuko da. Kasu horietan, hurrengo urtean jarraipen kontrolak egingo dira lekuan bertan, neurritz gain adierazitako kopurua dela-eta SIGPAC eguneratu denean izan ezik.

Onuradunak hurrengo urtean neurritz gaineko kopurua adierazten badu berriro ere, jarri eta berreskuratu behar den zehapenaren zenbatekoa kalkulatzeko, kontuan hartuko dira, batetik, urte horretan aplikagarria den zehapen osoa aurreko paragrafoei jarraituz eta, bestetik, aurreko urteko zehapenean emandako hobariaren zenbatekoa. Zenbateko horiek ezin badira osorik berreskuratu hurrengo 3 urteetan, geratzen den saldoa ezeztatu egingo da.

1.3. Aldatzea 11. artikuluan 5. paragrafoa, laguntzaren kalkulua arautzen duena. Azalera, zenbatekoa ... honela idatzita geratzen da:

11.5 Ez da laguntzarik emango eskatutako zenbatekoa 300,00 eurotik beherakoa bada.

1.4. Aldatzea 12. artikuluan ("Laguntza eskaerak") 6. paragrafoa. Hona idatzita geratzen dira:

12.6 Onuradun berak ezin izango ditu laguntzak jaso bi lerroetatik. Laguntza horiek baztertzailak dira euren artean. Eskaeran jasotako datuei jarraituz, espedientea eskatzailearentzat ekonomikoki onargarriena den lerroari egotziko zaio, hala dagokionean.

1.5 Aldatzea 3 paragrafoa, kentzea 4. paragrafoa eta berriro zenbakiak jartzea eta aldaketak egitea eskaeraren dokumentazioa arautzen duen 13. artikuluko hurrengo paragrafoetan. Honela idatzita geratzen dira:

13.3 PFEZean lan etekinik badago egotzita, erakunde ordaintzailearen ziurtagiria aurkeztu behar da, jasotako diru kopurua eta lan egindako ordu kopurua adierazita.

13.4 Eskatzailea pertsona juridikoa bada, eratze estatutuen eta, egonez gero, horien aldaketen fotokopiak, Nekazaritza Ustiategiaren Erregistroan sartu ahal izateko.

13.5 Edonola ere, Foru Aldundiak beretzat gordetzen du beharrezko deritzon dokumentazio osagarria dekretu honetan ezarritako laguntzak eskatzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoei eskatzeko eskubidea, eskaerak behar bezala balioetsi ahal izateko.

Eskabideetan akatsik dagoela edo daturik falta dela antzematen bada, organo izapidetzaileak, hala dagokionean, interesdunei eskatuko die eskabidean galdatutako betekizunen gaineko akatsak zuzentzeko edo eskatutako dokumentuak bidaltzeko, 10 egun balioduneko epean, jakinarazpena jasotzen den egunaren hurrengotik zenbatzen hasita, larunbatak kontuan hartu gabe. Jakinarazpen horretan berariaz adieraziko da, eskatutakoa bete ezean, eskabidea ezetsiko dela, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 68.1 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

1.6 Aldatzea 14. artikuluan ("Izapidetzea") 2. paragrafoa. Honela idatzita geratzen dira:

14.2 Espedientea izapidetzen den bitartean, laguntzaren organo kudeatzaileak behar dituen argibide eta agiri gehigarriak eskatu ahalko ditu, ebazpen proposamena egiteko xedearekin beharrezko diren datuak zehaztu eta egiaztatzeko. Interesdunak ez badu ezer egiten izapide hau betetzeko, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 73. artikuluan xedatutakoa beteko da.

1.7 Aldatzea 15. artikuluan ("Ebaztea eta jakinaraztea") 2. paragrafoa. Honela idatzita geratzen dira:

15.2. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 21. artikuluan xedatutakoa betetz, gehienez sei hilabete egongo dira prozeduraren ebazpena eman eta jakinarazteko, eskabideak aurkezteko epea bukatzen denetik aurrera. Epe hori ofizioz luzatuko da hiru hilabetez, ez badira jaso kudeaketarako eta kontrolerako sistema integratuko (32.1 artikulua) gainerako neurrien ikuskapenen emaitzak. Epe hori igaro eta ebazpen adierazirik eman edo jakinarazi ez bada, ulertuko da administrazio isiltasuna ezestekoa dela, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzei buruzkoak, 25.5 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

1.8 Aldatzea 18. artikuluan ("Ebazpenaren aldaketa, ez betetzea eta itzulketa.") 2. eta 5. paragrafoak. Honela idatzita geratzen dira:

18.2 Onuradunek betetzen ez badituzte hartutako konpromisoak edota foru dekretu honetan eta laguntza emateko ebazpenean ezarritako baldintzak eta xedea, edo laguntza eskuratzen badute horretarako bete behar diren baldintzak bete gabe, galdu egingo dute laguntza jasotzeko eskubidea, eta dagoeneko diru kopururen bat jaso badute, Arabako Foru Aldundiari itzuli beharko diote, aplikatu beharreko legezko interesak gehituta. Hori guztia ez da oztopo izango bidezko ekintzak aplikatzeko, otsailaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzen eta transferentzienak, ezarritakoaren arabera.

18.5 Dirulaguntza osoa edo zati bat itzultzeko prozeduraz gainera, urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoen dirulaguntzenak, aurreikusitako arau hausteengatik zehapen prozedura abiarazi ahal izango da.

1.9 Aldatzea 19. artikulua ("Araubide Juridikoa"). Honela idatzita geratzen dira:

Foru dekretu honetan jasotzen diren laguntzen onuradunek honako arau hauek beteko dituzte: urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzena; azaroaren

17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzena; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartu zen aplikatzeko arautegia; eta Europako, estatuko eta erkidegoko araudi aplikagarrietan ezarrita dauden gainerako xedapenak.

Bigarrena. Onartzea, 2017. urterako, dirulaguntza deialdia, honako ezaugarri hauekin:

- Laguntza lerroak
- Mendialdeetako konpentsaziozko ordainketak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Landa Garapeneko 2015-2020ko Programaren 13.1. N neurria).
- Natura muga nabarmenak dituzten guneei edo mendialdeez bestaldeko guneei behartsuei zuzendutako konpentsaziozko ordainketak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Landa Garapeneko 2015-2020ko Programaren 13.2. N neurria).
- Epea eta tokia: Laguntza eskaerak Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailaren eskualdeko nekazaritza bulegoren batean aurkeztuko dira, eskaera bakarra aurkezteko ezarri den epean (2017ko otsailaren 1etik apirilaren 30era arte, biak barne).

Ordainketa bakarraren eskaerak aurkezteko epe hori luzatuz gero, berez eta besterik gabe beste horrenbeste luzatuko da laguntza lerro hauetarako eskaerak aurkezteko epea.

– Kreditu erreserba: 40.1.01.42.01.479.00.04 “Gune behartsuak konpentsatzeko kalte-ordainak” izeneko partidaren kontura, Arabako Foru Aldundiak 2017ko ekitaldirako indarrean duen gastu aurrekontutik. Honako kreditu erreserbak:

- Konpentsaziozko ordainketak mendialdeetan (M13.1 neurria): 1.035.000,00 euro.
- Natura muga nabarmenak dituzten guneei edo mendialdeez bestaldeko guneei behartsuei zuzendutako konpentsaziozko ordainketak (M13.2 neurria): 65.000,00 euro neurrirako.

Aipatutako kredituak zenbateko gehigarrien bidez handitu ahal izango dira, uztailaren 21eko 88/2006 Errege Dekretuak onartutako Dirulaguntzen Lege Orokorraren Arautegiaren 58. artikulua ezartzen dituen mugen barruan, bai eta aurrekontuko partidaren edozein arrazoiengatik gerta litekeen kreditu gehikuntzaren bidez ere. Zenbateko gehigarri horien zenbatekoa neurri bakoitzerako hasiera batean gorde den kredituarena bestekoa izango da, gehienez.

Kreditu handitze hori hala dagokionean eta bi neurrietarako behar denean egingo da, hasierako kredituaren neurri berean. Era berean, neurriren batean soberakina geratzen bada, beste neurri zuzendu ahal izango da, beharrezkoa bada.

– Laguntzaren gehieneko zenbatekoa nekazaritza ustiatetik: deialdi honetan ez da ezartzen laguntzaren gehieneko zenbatekoa ustiatetik eta laguntza lerroko.

Hirugarrena. Nekazaritza Saileko foru diputatuari ahalmena ematea honako foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko eta, zehazki, honako oinarri arau hauen kontra nahiz deialdiaren ebazpenaren kontra jartzen diren errekurso guztiak ebazteko.

Laugarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Gasteiz, 2017ko martxoaren 14a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO